

Gaztelekua berriz ere jo eta su lanean

Udako ohiko etenaldiaren ondoren, zabalik da auzoko Gaztelekua. Datozen hiru hilabetetako kultur egitaraua prest dago, eta ikastaroetan izena emateko epea hilaren 20an amaituko da.

Gaztelekuko arduradunek hainbat ikastaro antolatu dituzte datorren hiruhilabetekoari begira: txalaparta, perkusioa, swing dantza, ipuin kontalaritza eta koreografia berriak. Lehen hiruarik hilaren 27an hasi eta abendura arte luzatuko dira. Larunbatero egingo dira ikas-

tarook 11.00etatik 14.00etara. Swing dantza ikastaroari dagokionez, parte hartzaileek hainbat elementurekin lan egiteko aukera izango dute, hala nola, pilotak, mazak eta zintak.

Ipuin kontalaritza eta koreografia berriei buruzko ikastaroak, bestalde, azaroan hasiko

dira. Lehendabizikoa astearteetan egingo da 18.00etatik 20.00etara. Bigarrenak *dance* eta teknho musikak izango di-tu ardatz, eta ostiraletan egingo da 18.00etatik 20.00-etara.

Argazki erakusketa

Bestelako jarduerarik ere antolatu dute Gaztelekuko ki-deek. Batetik, asteartero, alkoholik gabeko lantegia egingo da 18.00etatik 20.00-etara. Bestetik, amaitu berri diren Martuteneko jaietan egini-keo argazki eta graffiti lehia-keako lanekin erakusketa egingo da Gaztelekuan. Erakusketa hilaren 22an ipiniko dute eta hilaren 31ra arte egongo da ikusgai. Saribanaketa, berriz, hilaren 26an egingo da. Azkenik, hilaren 20an, henna tatuaje lantegia antolatu da



Ultraje Trinketen

Hilaren 24an, antzerkiaz gozatzeko aukera izango da auzoan, izan ere, Ultraje emakume antzerki taldeak emanaldia eskainiko du Trinkete tabernan. Emanaldia 23.00etan hasiko da.



Mota guztietako ikastaroak egingo dira auzoko Gaztelekuan. Izena emateko epea urriaren 20an bukatuko da.

**Ikastaroak
hilaren 27an
hasiko dira**

*Euskal eskubide historikoak
Euskal Herriaren iznera Europar
Autodeterminazio eskubidea*


**Euskal
Labirintoan
Barna**

KM
kulturunea

KOLDO MITXELENA Kulturunea
Areto Nagusia
2001eko urriaren 22tik 26ra
19:0etan

 Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

**BLIS
BLOCH**



Arrandegi kalea 4 eta 12
DONOSTIA